

OSO GARRANTZITSUA

SICUE mugikortasun-programa parte hartzeko interesa baldin baduzu, honakoak dira ezer egin AURRETIK aintzat hartu behar dituzun funtsezko kontuak:

1.- **INFORMA ZAITEZ** SICUE programarako eskaera **EGIN AURRETIK** . Ahalik eta informazio gehien eta zehatzena izateak berebiziko garrantzia du prozesua ganoraz burutzeko eta gaizki ulertuak eta ezusteko desatseginak ekiditeko. Horretarako bi kontsulta-iturri nagusi dituzu:

- zure Ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailea (galdetu zure idazkaritzan nor den).

- Graduondoko Ikasketak eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetzaren web orria: <http://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/sicue>

2.- **ARRETA HANDIZ IRAKURRI** SICUE programari buruzko informazioa. Erreparatu bereziki plaza bat lortzeko bete behar dituzun **baldintzei**. (**ikus deialdia**). Kontuan hartu Graduondoko Ikasketak eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetzak ezarri eta EHUko ikasle GUZTIEK bete behar dituzten baldintza orokorrez gain, **ikastegi bakoitzak bereak dituela** eta horiek murriztaileagoak izan daitezke (inoiz ez orokorrak baino malguagoak).

3.- Nazioarteko Harremanetarako web orrian (relaciones-internacionales.ehu.es » ikasleak » Sicue) "ESKAERA NOLA EGIN. URRATSEZ-URRATS" izeneko atalean duzu azalduta, xehetasun osoz, nola egiten den eskaera (beti GAUR bidez, **INOIZ EZ** paperean).

4.- Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak ikasle@ehu.eus kontua erabiliko du SICUE mugikortasun programekin zerikusia duen edozer komunikatzeko. Beraz, ohitu zaitez kontu hori erabiltzera. Gainera badakizu, helbide horretan harturiko mezuak zure helbide pertsonalera bideratu ditzakezula.

5.- Mugikortasunak **betekizun batzuen gauzatzea dakar**; beraz, **zuk zeuk hartu prozesu osoaren ardura**. Ere berean, Unibertsitateak ez du bere bizkar hartuko ikasleak sortzen duen inolako gasturik (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak, etab.), azkenean, ikasleak bidaia egin ezin badu.